



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/29

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2022KO IRAILAREN 29AN
ARRATSALDEKO 19:05EAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa.

Zinegotziak: Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Ainhoa Arrozpide Landa, Lur Etxeberria Gurrutxaga eta Joxe Mari Iribar Zapirain.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

1.- AISIALDIKO BEGIRALE ETA ZUZENDARIANTZAKO DIRULAGUNTZA KOPURUAK ONARTZEA.

Esp. zk.: 2022UDIG0001

Ikusirik

Tokiko Gobernu Batzarrak maiatzaren 31n onartu zituen 2021-2022 ikasturtean aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak egin dituztenentzako dirulaguntzen oinarriak.

Aipatutako oinarriak 2022ko ekainaren 13an argitaratu zituzten Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Saileko teknikariak 2022/08/02an txostena egin zuen.

Dirulaguntzen Batzorde Orokorrek 2022ko abuztuaren 8an egindako bilkuran, ebazpen-proposamena egin zuen eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen alegazioetarako hamar eguneko epea emanez.

Gerora, Udalak ikusi du, akats bat tarteko, epe barruan egindako bi eskaera ez zirela aintzakotzat hartu.

Bi eskaera horiek kontuan hartuta, saileko teknikariak 2022ko irailaren 20an berriz ere txostena eta proposamen berria egin du.

Irailaren 26an Dirulaguntzen Batzorde Orokorrean aztertu da gaia.

Araudi aplikagarria

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituen.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udalaren 2020-22 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (GAO, 2020/01/30)
- Aisialdiko begirale eta zuzendariarentzako dirulaguntzen oinarriak (GAO, 2022/06/13).



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/29

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehena: 2021-2022 ikasturtean aisialdiko begirale ikastaroak egin dituztenentzako dirulaguntza hauek onartu:

Izen-abizenak	Dirulaguntza
Vicente Zabala, Aimar	225,00 €
Altuna Aizpurua, Maddi	205,00 €
Sasiain Garcia, Amaia	205,00 €
Arantzazistroke Makazaga, Lorea	215,00 €
Arruti Portularrume, Oier	205,00 €
Guztira:	1.055,00 €

Bigarrena: Alegaziorik egon ez denez, proposamen hau behin betiko egitea eta dagozkion ordainketak bideratzea.

Hirugarrena: Onuradunek 2024ko uztailaren 31 baino lehen helarazi beharko diote Udalari titulua eskuratu izanaren agiria. Berau aurkeztu ezean dirulaguntza osorik itzuli beharko dute.

Laugarrena: Dirulaguntzak aurrekontu-partida honetatik bideratuko ditu Udalak: 1 4400 481 326 00 01 2022 (A 925-2022)

Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, arratsaldeko 19:10k direnean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.